



METROKO ABENTURA



Gaur metroan noa. Askotan joaten naiz metroan, baina, gaur egun berezia da, gaur metroan noalako, ni bakarrik. Txartela atera dut, **zirrikitu**an sartu dut, atea zabaldu zait, eskailerak jaitsi ditut eta metroan sartu naiz.

Gero gauza polita gertatu da: metroa gelditu egin da, eta jendea zarataka hasi da, zeren, gainera, bagoia ilunpetan geratu da. Eta zoragarria izan da ikustea jendea zelan jarri den zoroen pare, oihuka. Oihuen ostean, jendea urduritzen hasi da, eta **artega** mugitzen hasi dira iluntasunean, bata besteari zer gertatu ote den galdetuz.

Norbaitek esan du arazoak luze iraungo zuela, igual hilabete, eta denbora hori guztia metroan pasatu beharko genuela, ilunpean. Harrigarria bada ere, gizon luuuuuze batek kandela bat atera du, piztu eta argia egin da bagoian. Gizona, luuuzea izateaz gain, beeeltza ere bazen, eta proposamen bat egin digu bagoiko guztiei:

– Tira. Igual hilabete pasatu beharko dugunez hemen, jolas egin dezakegu.

Eta orritxo batzuk erakutsi ditu. Orri bakoitzean letra bat zegoen idatzita, eta bat aukeratu du, edozein.

–Hatxe –esan du.



Guk ez dugu ulertu zer jolas mota den hori, baina gizon luuuzek ondo azaldu digu dena berehala: berak letra bat ateratzean, egin behar duguna da arin-arin letra horrekin hasten den hitzen bat pentsatu eta hitz horrekin istorio bat kontatu. Gutako edozeinek, denoi, istorio bat. –Nik badut hitz bat –esan du gizon txiki batek–. Hodeia. Eta kontatzen hasi da:

–Hegazkineko pilotua izan naiz ni urteetan, beti hara eta hona hegazkinean. Egun batean Kalkutan nengoen, eta bestean Bordelen, eta handik ordu batzuetara, Ipar Poloko iglu batean, tea hartzen. Bizitza zeruan pasatu dut beti.

Egun batean, parean ikusten nituen hodeiak aztertzen hasi nintzen. Eta ikusi nuen txerrikume-itxurako hodei bat, liburu-itxurako beste bat eta otarrainxka-itxurako beste bat. Forma eta itxura guztietako hodeiak ikusi nituen, oso politak. Hegaldi guztiak hodeiei begira ematen nituen, zeren itxura zuten aurkitzeko asmoz. Baina, egun batean, hodei bati goitik, behetik, atzetik eta aurretik begiratu nion, eta ez nion tankerarik hartzen. Saiatu nintzen behin eta berriz, saiatu. Eta kostata, baina azkenean, **antzeman** nion bai, hodeiaren itxurari...

darse cuenta

–Eta zeren itxura zuen, bada? –galdetu diot. Eta, une horretan, gizonak irribarre egin du eta plop!, eginez hodei bihurtu da, eta gure gainean jarri da hodei irribarretsu txiki hura. Eta esan du: –Bada, hodei-forma zuen. Eta, hori esanda, bagoiko zirrikitu batetik irten da.

1.Esan esaldi hauek egia ala gezurra diren.

Ipuina kontatzen duena askotan joaten da metroan bakarrik.

EGIA

GEZURRA

Metroa gelditu denean, izutu eta beldurtu egin da; oso gaizki pasatu du.

EGIA

GEZURRA

Bagoia ilunpetan gelditu da eta jendea oihuka hasi da.

EGIA

GEZURRA

Norbaitek jolas bat proposatu die beste bidaiariei.

EGIA

GEZURRA

2.Ordenatu irudiak.



1

2

3

4

3. Irakurgaiko zer hitzak dagozkien definizio hauei?

Hirian lurpean ibiltzen den trena:

PILOTUA




Garraibideetan bidaiatu ahal izateko erosi behar den paper edo kartoi txikia:

BAGOIA



Trenak elkarren segidan dituen kotxeetako bakoitza:

TXARTELA



Hegazkina, itsasontzia edo lasterketa-autoa gidatzen duen pertsona:

METROA



4.Lotu esanahi bera duten hitzak.

Artega

Inquieto

Igarri

Istorio

Historia

Urduri

Hodei

Nube

Laino

Antzeman

Darse cuenta

Ipuin

Luze

Largo

Zabal

Txiki

Pequeño

Beltz

Ilun

Oscuro

Txiker